

Katu-k Benitoren teilatua berea dela dio.
Arratoik eta Azerik gauza bera diote, baita Urtxintxak ere...

—Nirea da!
—Ez! Nirea da!

Animaliak mokoka hasi dira...
Konponbiderik topatuko ote dute?

BENITOREN TEILATUA

Anuska Allepuz

nubeocho

BENITOREN TEILATUA

Anuska Allepuz



ISBN: 978-84-10406-38-4 www.nubeocho.com



*Luka eta Noah-ri, partekatzea beti
ederragoa dela badakiten horiei.*

Anuska Allepuz



Benitoren teilatua
Somos8 bilduma

© testuarena eta irudiena: Anuska Allepuz, 2025
© argitalpenarena: NubeOcho, 2025
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2025
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *El tejado de Benito*

Lehen argitaraldia: Otsaila, 2025
ISBN: 978-84-10406-38-4
Legezko Gordailua: M-945-2025

Espainian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.

BENITOREN TEILATUA

Anuska Allepuz




nubeOCHO

Katu-k izugarri gustuko zuen Benitoren teilatua.

—Nire teilatu gogokoena da hau —esaten zuen tailaz teila jauzi egiten zuen bitartean.



Arratoi ere Benitoren teilatura igo zen
eta Katuri mesfidati begiratu zion.

—Hau nire teilatua da, Katu. Bila itzazu
jauzika aritzeko beste teila batzuk.

—Oker zabilta, Arratoi. Nirea da!



Une hartan bertan, Azeri iritsi zen.

—Katu, Arratoi, hau nire teilatua da. Alde hemendik!

—Beste inor baino lehenago nengoen ni hemen! —oihu egin zuen Katuk—. Hau nire teilatua da, nire teillatu kuttuna!



—Ez, ez eta ez. Nirea da! —aldarrikatu zuen iritsi berri zen Urtxintxak.

Eta, une zehatz hartan...



—Zer egiten duzue zuek hemen? —galdetu zuen Hontz-ek
lur hartzen zuen bitartean—. Teilatu hau nirea da.
—Ez da egia! —deiadar egin zuen Azerik.
—Noski ezetz! Nirea da eta! —esan zuen Arratoik.
—Nire teilatua dela esan nahiko duzu —gehitu
zuen Urtxintxak.
—Ez, nirea da! —oihukatu zuen Katuk
aldarte txarrez.





Eta, orduan...

—Ah, ez, ez, ez... Hau nire teilatua da! —kexatu zen Sits bere ahots ahularekin.



—Baina, zer da hau! —esan zuen Trikuk, teilatura igotzea lortu zuenean.



—Gure teilatua bete-betea dago gaur! —gehitu zuen Trikutxok.

—Hau gure teilatua da eta bakean gozatu nahiko genuke —gailendu zen Triku Handia.

—Denak kanpora, alde hemendik! —oihukatu zuten hiruek aho batez.



Katu, Arratoi, Azeri, Urtxintxa, Hontz, Sits eta Triku eztabaidan hasi ziren.

—Nire teilatua da hau!

—Ni lehenago iritsi nintzen!

—Nirea da!

—Nik ikusi nuen lehenengo...

—Betidanik izan da nire teilatua!

Inork ez zuen Benitoren teilatutik jaitsi nahi. Hainbeste ziren, ezen bertan ez baitzen arkakuso bat gehiago ere sartzen.

Eta, une hartan bertan...

